

INTXAURRAK

PERTSONAIAK

KONTXI: Alzheimerra duen 89 urteko amona. Umore aldaketak ditu eta deskonfidantza handia. Bere gaztaroko hainbat pasarte sekretuan mantendu ditu eta orain errealitatea eta fikzioa nahasten ditu. Maitasuna zer den ongi ez daki.

IGOR: 34 urteko langabea. Itxuraz arduragabea, lasaia eta behatzailea. Amonarekin pasatzen du denbora gehien, kezkatuta baitauka. Ez dio dena sinesten, baina dena entzuten dio eta energia positiboa mantentzen saiatzen da.

SINOPSISIA

Memoria galtzen denean ez dago garbi zer den egia edo eta zer gezur eza. Gogoratzearen ahaleginak eta ahanzturaren desatseginak zeharkatzen ditu KONTXI eta IGOR, memoria egiten ari direla konturatu gabe. Amonaren iragan latza orain deskubrituko du bilobak, baldin eta esaten duena sinesten dion. Frankismoa, esklaboak, trabajadoreak, Jaizkibelgo errepidea, fusilamenduak, sukaldea, arropak lisatzea, abortua, pilulak, kanpamendua, espioitza, maitasuna, herriko plazako garrasiak eta intxaurrak.

1. Agerraldia - Hamaiketakoa

Banku bat agertoki erdian eta herriko plaza jartzen duen kartela atzealdean.

Amona KONTXI (89) eta biloba, IGOR (34), goizero moduan, paseoa egitera irten dira. IGORREK arrastaka darama amona gurpildun aulkian. Plazan egingo dute ohiko geldiunea. IGORREK amona bankuaren ondoan utziko du eta bera hantxe eseriko da.

KONTXI: Non gaude?

IGOR: Lezon.

KONTXI: Bai, baina non? Plazan? Plazan ez ee, plaza ez zait ezer gustatzen!

IGOR: *(Ia kasurik egin gabe)*. Ez, plazan ez, amona! Lasai.

KONTXI: Ados.

IGORREK zapia jarriko dio belauen gainean eta intxaurrek eta haiek haustekoa aterako ditu poltsatik. Puskatzen hasiko da.

IGOR: Ea amona, jan ezazu!

KONTXI: *(Erasokor)* Ez dut nahi.

IGOR: Nola ezetz! Zure onerako da eta gainera goxo-goxoak daude. Mmmm...

KONTXI: Ezetz!! Ez zaizkidala gustatzen!

IGOR: Amona, zoratzen zaituzte ta!

KONTXI: Zer jakingo duzu zuk nitaz? Ez dakizu ezer! Utzi pakean!

IGOR: *(Triste)* Barkatu amona.

Isilunea. Amonak biloba begiratzen du, burumakur ikusten du, beste aldera begiratu eta hasperen egingo du. Eskua luzatuko dio gero, burua biratu gabe eta amore emanaz.

KONTXI: Ekatzu bat!

IGOR: Zer?

KONTXI: Ekartzeko bat, kontxo!

IGOR: Aii! Bai bihurria zu!

Jan egingo du eta gozatu.

KONTXI: Mmmmmm... Egia da, asko gustatzen zaizkit intxaurrek! Ze goxuak!

IGOR: Esan dizut ba... Gehiago nahi dituzu?

KONTXI: Bai.

Gehiago hautsi eta eskura emango dizkio. Isilunea. KONTXI barrez hasiko da bat-batean, algaraka, oroitzapenetan gustura.

KONTXI: Intxaurreak...

IGOR: Zerbait gogoratu duzu, amona?

KONTXI: Gogoratu? (*Barrez*). Ekarri duzu saskia?

IGOR: Saskia, zertarako?

KONTXI: (*Abenturazale*) Lau edo bost beharko ditugu intxaurreak biltzeko. Iraila da sasoirik onena. Azkar ibili, haiek denak lapurtu aurretik.

IGOR: Intxaurreak biltzea gustatzen zaizu, amona? Ze ongi!

KONTXI: Aspertuta nago arroza jateaz. Nik intxaurre ogitartekoa nahi dut, nahi dut. Aberatsek bezela.

IGOR: (*Mesfidati*) Arroza ez al zaizu gustatzen? Nahi baduzu sartuko dizkizut intxaurreak ogi tartean.

KONTXI: (*Hitza moztuz eta ilusionaturik*). Nahi adina lortuko ditugu, Adolfo, gure Intxaurreondora hurbiltzen garenean. Dagoeneko mila eta bi metro neurtzen dituela uste dut.

IGOR: Gure Intxaurreondoa amona?

KONTXI: Batera landatu genuena, motel. (*Triste*) Ez duzu gogoratzen?

IGOR: (*Zalantzati*) Nirekin batera egin zenuen?

KONTXI: (*Nahastuta*) Bai. Hori uste dut.

Intxaurrea hautsiko du. Isilune laburra.

IGOR: (*Ilusioa itzuliz*) Mila eta bi metro neurtzen ditu orduan?

KONTXI: (*Harro*) Horixe. (*Bihurri*) Jeneralaren jardinean sartu eta denak lapurtuko ditugu. Gero Intxaurreondo azpian jango ditugu, gure bakardadean.

IGOR: (*Bere buruari*) Norekin joango ote zinen Intxaurreondo azpitara amona. Gaztetan ezagutu nahi zintuzket.

KONTXI: Ikusten bagaituzte, akabo. Guk ezin dugu han sartu. Goazen azkar, haiek baino lehen iritsi behar dugu eta!

IGOR: Amona, zerbait kontatzen saiatzen ari zara? Jeneralei lapurretan ibiltzen zinen?

KONTXI: Ixo! Shhhh!! Zuk ez dakizu ezer nitaz.

IGOR: Kontaidazu ba!

KONTXI: (*Erasokor*) Ezta pentsatu ere. Sekretua da!

IGORREK onartu egingo du intxaurrak jan. KONTXI berean dago murgilduta. Isilunea hautsiko du bat-batean.

KONTXI: *(Garrasika)* Muera Franco!

IGOR: Amona! Baina zer arraio...

KONTXI: *(Burua makurtuz)* Sshhhh! Etorri hona azpira Adolfo!

IGOR: Zer diozu? Franco hilda dago, duela 48 urte, hain zuzen.

KONTXI: Gezurra! Franco ez da hil! Atzo hemen izan zen!

IGOR: Hemen, Lezon?

KONTXI: Bai, Jaizkibelen. G uno - treinta y cuatro, cuarenta.

IGOR: Zer da hori? Kode sekretu bat edo?

KONTXI: Errepidea, txotxolo, Jaizkibelera doana. Gezurra dirudi. Hori lehen ez zegoen ee... eta orain bai. Ez dakizu?

IGOR: Bai, baina atzo Franco, hemen egotea...

KONTXI: Nik ikusi nuen nire begiekin. Ez didazu sinesten? Lagunek deitu zidaten goizean, errepidearen inaugurazioa zegoela eta bazetozela denak. Denak: haiek denak. Orduan manifestazioa egingo zutela eta haiekin joateko. Norbait behar zutela pankarta eusteko. Eta ni hantxe. Trenean igo ginen bazkalostean.

IGOR: *(Desafiatzen)* Aaa.. Orduan trenean igo zinen Jaizkibelera eta pankarta hartu Franco zegoelako?

KONTXI: Bai. Pinotxo ere han zegoen. *(Garrasika)* Pinotxo zikina!! Fuera!! Franco Muera!! Hiltzaileak! Gora trabajadoreak!

IGOR: *(Zutituz eta eskuak eutsiz)* Amona, mesedez, jaitsi bolumena!

KONTXI: Amolai Franco eta beste guztiak!

Amona lasaitu egingo da. Isilunea. IGORREK amona askatuko du eta poltsatik botila bat aterako du.

IGOR: Amona. Ura nahi duzu?

KONTXI: Zer jakingo duzu zuk nitaz? Ez dakizu ezer! Utzi pakean!

IGOR: Kontaidazu ba.

KONTXI: Ezta pentsatu ere. Shhh! Sekretua da.

KONTXI alde batera begira eta IGOR atsekabetuta, zer egin ez dakiela.

KONTXI: *(Ahopeka)* Adolfo

IGOR: Bai?

KONTXI: Hatoz hona. Kontatuko dizut!

Gerturatzeko keinua egingo dio, belarria bere ahoan jartzea lortu duen arte. Xuxurlatuz kontatuko dio sekretua.

IGOR: *(Barrez).* Zer??? Espioia zarela, amona? Mesedez. Benetan? Amona... Zer diozu?

Eseri egingo da eta intxaurrak hartuko ditu berriro.

KONTXI: Shhh!!! Ez esateko ozen! Sekretua da: Francoren espioia naiz, zerbitzu sekretuetako morroia!

IGOR: Baina, Francok behar du laguntzailerik orain? Benetan?

KONTXI: Noski. Gerran gaude!

Zutitzen saiatuko da eta bilobak lagundu. Izkin batera begiratuko du.

KONTXI: Badator norbait hortik?

IGOR: *(Begiratzera behartuta).* Ez amona, lasai, hemendik ez dator inor.

KONTXI: Gerturatu hona. Berak badaki arropak lisatzen dizkiedala presoiei eta bazkaria prestatu.

IGOR: Niri asko gustatzen zait egiten duzun baratxuri zopa.

KONTXI: Usain txarra dauka Adolfo. Dena jakin nahi du. *(Oinez hasita)* Gaur portura joan behar naiz, yate bat iritsiko da kaxa batzuekin plazara eramateko. Esplosiboak dira Adolfo, badakit. Nik badakit! Gerran gaude! Ezkuta zaitez!

IGOR: Amona, lasai, ez da halakorik gertatuko. Eseri zaitez!

KONTXI: *(Aztoratuta)* Boom, boom!! Begira, begira, hemen daude! Hegazkina badator! *(Beldurrez eta erdi negarrez).* Adolfo lagundu, ezkutatu zaitez. Eta plazara ez, plazara ez joan!

IGOR: *(Eserarazten)* Amona, lasai, ez naiz joango.

KONTXI berriro ere esertzea lortuko du, baina ez zaio larritasuna pasa.

KONTXI: Gauetan oihuak entzuten dira Adolfo eta ez da nire errua izan, nik ez daukat errurik!

Begiak eta belarriak estaliko ditu.

IGOR: *(Kezkatuta)* Lasai amona.

KONTXI: Ez joan plazara Adolfo! Mesedez. Ez nazazu utzi!

IGOR: Ez gara inora joango amona. Ez da ezer gertatzen, batera gaude.

KONTXI: (*Amorraturik*) Gezurra!

IGOR: Ez da gezurra.

KONTXI: Beti esaten didazu gezurra! Joango zara eta ez zara itzuliko!

IGOR: Ez naiz inora joango amona, ondoan naukazu!

KONTXI: Ez naiz zutaz fio. Nor zara zu? Eh!

Berriro zutitzen saiatuko da, baina bilobak ez dio utziko.

IGOR: Egon geldi amona, mina hartuko duzu.

KONTXI: Utzi nire bizitza egiten! Utzi! Bakarrik egon nahi dut! Ez dakizu ezer nitaz! Nor zara zu?

IGORREK pilulak aterako ditu poltsatik.

IGOR: Amona, pilulak hartu behar dituzu!

KONTXI: Ezta pentsatu ere.

IGOR: (*Lasaituz*) Amona. Egunero hartzen dituzu, gogoratzen? Dena ondo doa. Begira hau zure jertsea da. Usaindu. Eta hau da zure betiko manta. (*Seinalatuz*) Zuhaitza, farola, Lezoarrak... Eta begira, intxaurreak. Intxaurreak nahi dituzu?

KONTXI: Hau ez da Lezo. Non gaude?

IGOR: Zertxobait aldatu da txikia zinenetik, baina bada, amona, Lezo da.

KONTXI: Plaza da? Ez zaizkit intxaurreak gustatzen!

IGOR: (*Desesperatuta*) Amona, pilula hartu behar duzu!

KONTXI: Ezetz! Ez dut nahi. Zuk nahi duzu nik abortatzea! Hori da emakumeei ematen zaiena abortatzeko. Badakit e, badakit, ez naiz tuntuna!

IGOR: Baina... zu ez zaude haurdun.

KONTXI: (*Aztoratuta*) Nola dakizu? Zuk ez nauzu ezagutzen! Ez dakizu ezer nitaz. Utzi! Pilularik ez! Ezetz! Ospa! Alde!

IGOR: Barkatu amona.

Isilunea

KONTXIK beste aldera begiratuko du, IGORREK zer egin ere ez daki. Burumakur dago eta eskuak belaun artean gordeta. Arnasa sakon entzuten da.

KONTXI: Ekatzu.

IGOR: Zer?

KONTXI: Ekartzeko alkandora, zikin zikina daukazu eta.

IGOR: *(Irribarrez eta hurbilduz)* Bai, amona. Etxera iristean emango dizut.

KONTXI: Txapuzero halakoa!

IGOR KONTXIRENGANA hurbilduko da eta musu emango dio. Manta sorbalden gainean jarri eta aulkiaren atzean jarriko da, martxa egitera doaz. Plazako atzealdeko kartela begiratuko du.

IGOR: Goazen amona, hemen ez gaude eta eroso.

KONTXI: Nora?

IGOR: Ez dakit, Jaizkibelera?

KONTXI: Bai goazen! Eta intxaurrak jango ditugu, Adolfo!

IGOR: Amona, ez naiz Adolfo, Igor naiz, zure biloba.

KONTXI: Ah! Jolastuko dugu kartetan?

IGOR: Bai amona, primeran.

KONTXI: Sukaldeko tiraderan gordeta daude.

IGOR: Ongi gogoratzen duzu e...

KONTXI: Bai noski. Zer uste duzu ba?